# JORNADAS DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO JARDUNALDIAK

Avanzando en la integración de la salud laboral y la salud pública

Aitzina eginez lan-osasunaren eta osasun publikoaren integrazioan



Jorge Oteiza © Pilar Oteiza, A+V Agencia de Creadores Visuales, 2018 magen cedida por Museo Jorge Oteiza(Gobierno de Navarra)

## Pamplona / Iruñea

Palacio de Congresos Baluarte / Baluarte Biltzar Jauregia

**14 septiembre / irailaren 14a 2018**

**CASTELLANO**

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Más información / Informazio gehiago
www.jornadasprevencion.org

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE TRABAJO, MIGRACIONES Y SEGURIDAD SOCIAL
insst Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo

# PRESENTACIÓN

## Condiciones de empleo y trabajo. Su impacto en la salud. Sistema preventivo actual en salud laboral

Las condiciones de empleo y de trabajo están evolucionando en un mundo globalizado. Frente al modelo industrial tradicional de grandes empresas, empleo fijo, trabajo masculino y presencia sindical, la situación actual se caracteriza por la atomización de las empresas, el aumento de trabajo autónomo, las reformas en la legislación laboral hacia peores condiciones de empleo y de trabajo, la menor atención a la prevención en salud, menor participación de las y los trabajadores en la gestión preventiva… Todo ello afecta especialmente a mujeres y a ocupaciones de "menor rango". La OMS en 2017 estudia la carga de enfermedad asignable a exposiciones laborales, entre las que destacan: dorsalgia, pérdida de audición, enfermedades pulmonares, cánceres, traumatismos y depresión. En el Estado español se estima una subdeclaración del 85% de las enfermedades profesionales. En el periodo 2012-2017 los índices de accidentes en el trabajo han ido aumentando.

En los últimos años ha emergido un nuevo paradigma de la salud laboral que considera la influencia del trabajo más allá de la exposición a riesgos laborales para entenderlo como un determinante social de la salud y uno de los principales mecanismos a través de los que actúan las desigualdades en salud. Tener o no trabajo y su calidad, sus ingresos… influye de manera decisiva sobre la vida de las personas, sobre su salud y bienestar y la de sus familias.





En la actualidad, para prevenir los riesgos y daños, se dispone en España de un sistema preventivo que favorece que las empresas en su mayoría contraten los recursos profesionales a Servicios de prevención “ajenos”, constituidos por entidades mercantiles, cada vez de mayores dimensiones y con mecanismos de control público escasos. Microempresas y PYMES se ven desfavorecidos en este Sistema. Otros países disponen de otros tipos de Sistemas preventivos.

## Papel de las Administraciones laboral y de salud para la mejora de la salud laboral

Compete al Ministerio de Empleo proponer y dictar leyes y reglamentos respecto a condiciones de contratación y trabajo, así como en materia preventiva. Las competencias del Sistema de salud pública en salud laboral han generado sobre todo la elaboración de Protocolos de vigilancia de la salud y de controles respecto a la parte sanitaria de los Servicios de prevención. Algunas CCAA han desarrollado diversas experiencias y actividades de coordinación e integración entre ambas Estructuras. El papel

preventivo de la Atención primaria de salud está poco desarrollado en este tema.

Sin embargo, se van planteando propuestas de avance. Tanto desde el ámbito laboral (Marco estratégico europeo 2014-2020, Estrategia española 2015-2020, Planes de CCAA) como desde el de salud (Plan de Acción Global sobre la salud de los Trabajadores, OMS 2007, Conferencia Europea de Salud Pública de 2012…), se plantea la necesidad y el reto de interconectar mejor la salud laboral y la salud pública en múltiples áreas y el refuerzo del papel de las Administraciones públicas para mejorar la Salud laboral.

## OBJETIVOS

Estas jornadas se proponen profundizar en el debate sobre las condiciones de trabajo y empleo y sus repercusiones en la situación y necesidades en salud de la población trabajadora y en la eficacia de los sistemas de prevención existentes.

También se propone reflexionar, discutir y compartir propuestas legislativas, formativas, teóricas y operativas que permitan avanzar en la coordinación e integración entre la administración laboral y de salud pública para mejorar, mirando al futuro, la salud de trabajadoras y trabajadores.



## A QUIEN SE DIRIGE

Profesionales y autoridades de los ámbitos de la Salud laboral y la Salud pública, Delegados y Delegadas de prevención y Organizaciones empresariales y sindicales.

# JORNADAS DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO JARDUNALDIAK

Avanzando en la integración de la salud laboral y la salud pública

Aitzina eginez lan-osasunaren eta osasun publikoaren integrazioan



Jorge Oteiza © Pilar Oteiza, A+V Agencia de Creadores Visuales, 2018 magen cedida por Museo Jorge Oteiza(Gobierno de Navarra)

## Pamplona / Iruñea

Palacio de Congresos Baluarte /
Baluarte Biltzar Jauregia

**14 septiembre / irailaren 14a 2018**

EUSKERA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Más información / Informazio gehiago
www.jornadasprevencion.org

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE TRABAJO, MIGRACIONES Y SEGURIDAD SOCIAL

insst
Instituto Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo

# AURKEZPENA

## Enplegu- eta lan-baldintzak. Osasunean duten eragina. Egungo prebentzio-sistema lan-osasunean

Enplegu- eta lan-baldintzak bestelakotzen ari dira gure mundu globalizatuan. Ohiko eredu industrialean enpresa handiak, enplegu finkoa, lan maskulinoa eta sindikatuak ziren nagusi eta orain, ordea, bestelako ezaugarriak ageri zaizkigu: enpresen atomizazioa, lan autonomoaren ugaritzea, lan-arloko legeriaren erreformak, lan- eta enplegu-baldintza kaskarragoak ekarri dituztenak, osasun arloko prebentzioak arreta gutxiago jasotzea, langileek prebentzioaren kudeaketan duten partaidetza urritu izana... Horrek guztiak batik bat emakumeei eta “maila apalagoko” langintzei eragiten die. OMEk lanari egotz dakiokeen gaixotasun-zama ikertu zuen eta, besteak beste, honako hauek nabarmendu ziren: bizkarreko mina, entzumenaren galera, biriketako eritasunak, minbiziak, traumatismoak eta depresioa. Espainiako Estatuan gaixotasun profesional %85eko azpiaitorpena dagoela uste da. 2012-2017 epealdian laneko istripuen indizeek goiti egin dute.

Azken urteotan lan-osasunaren paradigma berri bat agertu da eta, haren arabera, lanaren eragina laneko arriskuen esposizioaz haratago doa, lana osasunaren gizarte-determinatzaileetako bat delako, baita osasun-arloko desberdinkeriei bide ematen dieten mekanismo nagusietako bat ere. Lana izateak ala ez, lanaren kalitateak, diru-sarrerek eta gisakoek modu erabakigarrian eragiten diete jendearen bizitzari, norbanakoen eta haien familien osasunari eta ongizateari.





Gaur egun, arriskuei eta kalteei aurre egiteko Espainian dagoen prebentzio-sistema dela-eta, enpresa gehienek "kanpoko" prebentzio-zerbitzuei kontratatzen dizkiete baliabide profesionalak. Merkataritza-erakunde gero eta handiagoak arduratzen dira zerbitzu horietaz, kontrol publikoko mekanismoak urriak direla. Sistema horrek ez die mikroenpresei eta enpresa txiki nahiz ertainei mesederik egiten. Beste herrialde batzuek bestelako prebentzio-sistemak dituzte.

## Lan- eta osasun-arloko administrazioen eginkizuna laneko osasuna hobetzeko

Enpleguko Ministerioaren eskumena da kontratu- eta lan-baldintzei buruzko eta prebentzio-arloko lege eta erregelamenduak proposatu eta ematea. Osasun publikoko Sistemak lan-osasunean dituen eskumenen ondorioz, osasuna zaintzeko protokoloak eta kontrolak prestatu ditu prebentzio-zerbitzuetako osasun-esparruari begira. Autonomia Erkidegoetako batzuek zenbait esperientzia eta jarduera gauzatu dituzte bi egiturak koordinatuz eta integratuz. Gai honetan gutxi garatu da Oinarrizko Osasun Laguntzak izan

beharreko eginkizuna.

Hala ere, aitzina egiteko hainbat proposamen azaleratzen ari dira. Bai lan-esparrutik (2014-2020 Esparru Estrategiko Europarra, Espainiako 2015-2020 Estrategia, autonomia erkidegoetako planak), bai osasunarenetik (OMEren Langileen osasunaren gaineko 2007ko Ekintza Plana, Osasun Publikoari buruzko Europako 2012ko Konferentzia...) mahaigaineratu egin da ezinbestekoa dela hainbat arlotan hobeki uztartzea laneko osasuna eta osasun publikoa, horixe dugula erronka, eta, bestetik, azpimarratu da administrazio publikoen eginkizuna sendotu beharra dagoela laneko osasuna hobetzeko.

## HELBURUAK

Jardunaldi hauen asmoa da lan- eta enplegu-baldintzei buruzko eztabaidan sakontzea, eta aztertzea, orobat, nola eragiten dieten langileen osasun-egoera eta -premiei, baita egungo prebentzio-sistemen eraginkortasunari ere.

Jardunaldiotan, bestetik, zenbait proposamen aztertu, eztabaidatu eta partekatu nahi dira (legegintzakoak, prestakuntzakoak, teorikoak eta operatiboak), lan-administrazioaren eta osasun publikoaren arteko koordinazioan eta integrazioan aurrera egiteko asmoz, langileen osasuna hobetzearren eta etorkizunari begira.



## NORI ZUZENDUA

Laneko osasunaren eta osasun publikoaren esparruetako profesionalak eta agintariak, prebentzioko ordezkariak, enpresaburuen erakundeak eta sindikatuak.